

#### Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 Tel.943481850 - udala\_kirolak@donostia.eus | www.donostia.eus 20014 Donostia / San Sebastián

#### **UDAL BATZARRARI**

#### **AL AYUNTAMIENTO PLENO**

#### KIROL ZERBITZU ETA INSTALAZIOEN ARAUDI BERRIA

### NUEVO REGLAMENTO DE SERVICIOS E INSTALACIONES DEPORTIVAS

#### Kontuan hartzekoak:

## Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak Kirol Instalazio eta Zerbitzuen Araudi berri bat onartu nahi du, gaur egun indarrean den araudiaren erregulazioa eguneratzeko asmoz; horrela, indarrean diren araudiak bete nahi dira, eta zerbitzu horien kudeaketa eguneratuagoa eta egokiagoa eskaini nahi zaie herritarrei.

#### Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren Kirol Instalazio eta Zerbitzuen oraingo Araudia, Ofizialean 2007ko Gipuzkoako Aldizkari maiatzaren 16an argitaratutakoa, zuzeneko eta zeharkako kudeaketa duten instalazioetarako araudi komun bat sortzeko moduan erregulatu zen. Helburua herritarren eskubideak udal guztietan instalazio bermatzea zen, erabiltzaileen eskubideak indartuta eta formula azkarrak eta eskuragarriak ezarrita. erabiltzaileekiko komunikazio lotura iraunkor bat sortzeko.

# Nolanahi den, hamar urte baino gehiago igaro direnean, ezinbestean bete beharreko lege berriak sartu dira indarrean, eta gizartearen eskaera berriek agerian utzi dute aurreko araudian hainbat aldaketa egiteko beharra, herritarrentzat garrantzi handia duten eta orain arte kanpoan geratu diren hainbat alderdiren bidez eguneratzeko.

#### Consideraciones:

El Patronato Municipal de Deportes de San Sebastián quiere promover la aprobación de un nuevo Reglamento de Servicios e Instalaciones con el fin de actualizar la regulación del reglamento actualmente vigente, buscando un cumplimiento de las normativas en vigor y una gestión más actual y adecuada de estos servicios para la ciudadanía.

Servicios ΕI actual Reglamento de Instalaciones del Patronato Municipal Deportes de San Sebastián, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 16 de mayo de 2007, se reguló creando una normativa común tanto para las Instalaciones de gestión directa como para las de gestión indirecta. El objetivo era que los ciudadanos/as vieran garantizados sus derechos en todas las Instalaciones Municipales, reforzando los derechos de los usuarios/as y estableciendo fórmulas ágiles y accesibles para crear un vínculo comunicación continuo con los usuarios/a.

No obstante, transcurrido más de una década, nuevas leyes han entrado en vigor cuyo cumplimiento es primordial, y las nuevas demandas sociales evidencian la necesidad de llevar a cabo diversas modificaciones sobre el Reglamento anterior, actualizándola con cuestiones que son de gran transcendencia para la ciudadanía y que hasta el momento quedaban fuera del mismo.



#### Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 Tel.943481850 - udala\_kirolak@donostia.eus | www.donostia.eus 20014 Donostia / San Sebastián

Hala, erabiltzaileen gaineko datuak eta haien irudia babesteko alderdi batzuk ere jasotzen ditu orain araudiak, erabiltzaileen eskubideak bermatu eta haien datu eta irudien erabilera babesteko. Era berean, informazio eta gardentasun aldetik ere ematen ditu eskubide batzuk, eta, beraz, donostiarrekin konpromiso bat izatea dakar horrek, dokumentuetara eta datuetara jotzeko bidea izan dezaten donostiarrek.

Donostiako kirol instalazioak bandalismoaren kontra hobeto babesteko neurri batzuk ere badakartza araudi honek, ondasun eta interes publikoa, oro har, zaintzeko hartu behar diren neurriak hartuta.

Azkenik, kirola seguru egiteko eta instalazioak seguruak izateko alderdi batzuk ere sendotu egin dira, kirola lasai eta gauzak behar bezala erabiliz egitea segurtatua.

#### Egiteko prozedura:

Kirol instalazioak kudeatzearekin zerikusia duten kolektiboen ekarpenak ere aintzakotzat hartuta egin da araudi hau, eta, hala, bilera batzuk egin ditugu Udalaren kirol instalazioak kudeatzeko emakidak hartuta dituzten entitateekin eta klubekin. Udalaren Kirol Patronatuko langileen parte hartzea ere izan dugu, eta haien proposamenak ere aztertu ditugu.

Administrazio prozeduraren gaineko legearen 133. artikuluak araututako partaidetza izapidea ere egin dugu, espedientean ikus daitekeen bezala. Prozedura horretan hiru iradokizun burutu dira. Horiel landu eta ahal den nuerrina testura gehitu dira

Araudia onartzeko, Zuzendaritza Batzordeak Udalarri bidali behar dio hura, arau eskumena erabilita hartarako, Udalaren Kirol Patronatuko Estatutuen 14.1n) artikuluak jartzen duen eran. Onartu, Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 49. artikuluak jartzen duen eran egin behar da, hau da, aurrena Udalbatzak eman behar dio hasierako onarpena, 30 egunean nornahik ikusteko eta interesatuek erreklamazioak eta iradokizunak egiteko moduan izan hurrena, eta, haiei erantzun ondoren, behin betiko onarpena eman azkenik Udalbatzak.

Con este fin, el reglamento recoge nuevos aspectos relativos a la protección de los datos, y de la imagen de las personas usuarias, garantizando sus derechos y protegiendo su uso. También otorga derechos relativos a la información y la transparencia, por lo que supone un compromiso con la ciudadanía donostiarra para el acceso a la documentación y datos.

También se adoptan medidas para proteger del vandalismo a las instalaciones deportivas donostiarras de la forma más efectiva posible, tomando las medidas necesarias para salvaguardar los bienes y el interés público en general.

Por último se refuerzan aspectos relativos a la seguridad de la práctica deportiva y a la seguridad en las instalaciones, garantizando la tranquilidad y el buen uso en la práctica deportiva

#### Procedimiento de elaboración:

El nuevo Reglamento se ha elaborado teniendo en cuenta las aportaciones de los distintos colectivos implicados en la gestión deportiva en las instalaciones y así se han celebrado reuniones con las entidades concesionarias de instalaciones deportivas municipales y clubes. También se ha contacto con el Personal del Patronato Municipal de Deportes y se ha estudiado sus propuestas.

Se ha seguido el tramite de participación regulado en el artículo 133 de la Ley de Procedimiento Administrativo, tal y como se acredita en el expediente. En dicho trámite se han realizado tres sugerencias , que se han estudiado y en la medida de lo posible incorporado al texto.

El Reglamento debe ser remitido al Ayuntamiento Pleno por el consejo Rector, en el ejercicio de la potestad reglamentaria, de acuerdo con lo regulado en el artículo 14.1n) de los Estatutos del Patronato Municipal de Deportes. Seguidamente, la aprobación se realizara conforme a lo prescrito en el artículo 49 de la Ley de Bases de Régimen Local, que determina la necesidad de aprobación inicial del Pleno, información publica y audiencia a los interesados de 30 días mínimo para la presentación de reclamaciones y sugerencias y tras la resolución de las mismas, se procederá a la aprobación definitiva por el Pleno.

Araudi berriaren proposamena, KUPeko Artezkaritza Kontseiluan aurkeztu zen 2018ko urriaren 18an.

La propuesta de nuevo Reglamento se presentó al Consejo Rector del PMD del 18 de Octubre.



#### Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 Tel.943481850 - udala\_kirolak@donostia.eus | www.donostia.eus 20014 Donostia / San Sebastián

Adieraziak hala, Udalbatzari onar dezn aurkezten zaio honako proposamen:

Por lo expuesto, se eleva al Excelentísimo Ayuntamiento Pleno para su aprobación, la siguiente propuesta de:

#### **ERABAKIAK**

#### **ACUERDOS**

- 1- Onartzea, lehen aldi batean, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren Kirol Instalazio eta Zerbitzuen Araudiaren Araudia.
- 1.- Aprobar inicialmente el Reglamento de Servicios e Instalaciones Deportivas del Patronato Municipal de Deportes de San Sebastian.
- 2- Hogeita hamar (30) egunean jendeaurrera aterata edukitzea testua, Toki Araubiearen Oinarriak arautzeko 7/1985 legeko 49. Artikuluak agintzen duen eran, interesadunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak, eta iradokizunak egiteko bidea izateko. Halakorik aurkeztu ezean, akordioa behin betiko onartutzat emango da.
- 2.- Someter el texto aprobado inicialmente al trámite de información pública durante el plazo de 30 días según lo dispuesto en el artículo 49 de la ley 7/85, de 2 de abril , de Bases de Régimen Local, a fin de que los interesados pueda presentar las reclamaciones o sugerencias que se consideren oportunas. En el caso de que no se presentara ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Donostian, 2018ko urriaren 30a

#### DONOSTIAKO KIROLETAKO UDAL PATRONATUA

Sin. Leire Landa Sedano (kudeatzailea)

Sin. Martin Ibabe Eceiza (lehendakariordea)